

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga borondatezko epean ordaintzea

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar dutenei jakinarazten zaie, 2016ko urriaren 31tik abenduaren 31ra bitartean, egun biak barne eta egun baldiodunetan, ordaindu ahal izango dituztela 2016ko ekitaldiko ordainagiriak, borondatezko epean.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berebean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek Udalaren Diruzaintzan (udal bulegoak, Herriko Enparantza, 1. Araia) ordaindu ahal izango dute borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Era berean, udalak Kutxabanken, Laboral Kutxan eta La Caixan dituen kontuetakoren batean egin dezakete ordainketa.

Premiamendu aldia 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da, administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboa abiarazita eta dagokion errekargua aplikatuta (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako zergena, 28. artikulua).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2016ko urriaren 6a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ